



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/10/16

Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Gerediaga Elkartek oroitzapeneko irudia inauguratu dabe Gerediagan, orain 400 urte sorgin izatearen salaketea jaso eben emakumeak gogoratu

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak, Arantza Atutxa Gerediaga Elkarteko gerenteagaz batera, XVII. gizaldian Durangoko Merinaldeko agintariak, sorginkeria zala eta, salatutako emakumeak oroitzen dituan plaka eta irudia inauguratu ditu gaur goizean. Instalazio hori Gerediagako Foru Zelaian egongo da modu iraunkorrean.

Ekitaldiak, joan dan bagilean egindakoari emoten deitso jarraipena. Bertan, gaur egun Durangaldean dagozan udal guztietako ordezkariak eta Bizkaiko Batzar Nagusietako eta Gerediaga Elkarteko presidentek, bardintasuna eta pentsamendu librea errebindiketan eban adierazpena sinatu eben.

Batzar Nagusietako Presidenteak bertaratu diranen aurrean autortu dauenez, beretzat esanahi “berezia” dauka gaurkoa moduko ospakizunetan parte hartzeak: “Gure arbasoak hurrago sentiduten dodaz, eta horrek erantzukizun handiagoa dakar”. “Emakume anonimo hareek ikusgai bilakatu gura genduzan eta doguz”, azaldu dau. “Hori dala eta, gaur geure alkateen eskutik jasan eben errepresinoa erakutsiko dogu”.

Gaurtik aurrera Gerediagako Foru Zelaian egongo dan irudia, Erdi Aroko buruko tipikoa daukan andrazkoarena da. Otadui gogoratuazo dauen moduan, “emakumeak kontrolatuko modua zan, 1593ko Bilboko Uriko Ordenantzetan ikusten dan moduan, adibidez”.

Irudiaren ondoan, hau esaten dauen oroitzapen plakea dago: “Silueta honek 1617 eta 1618 urteetan, sorginkeriaz salatuta, Durangoko Merinaldeko agintarien errepresioa jasan zuten emakume izengabeak gogoratu ditu. 2018ko ekainaren 9an, Durangaleko alkateak barkamena eskatuz eta sinesmen, kontzientzia eta pentsamendu librea aldarrikatuz manifestua sinatu zuten”.

SORGINEN AZKEN HEGALDIAREN ITZALERA 2018

Ospakizun hori, bariku honetan, urriaren 19an, Gerediagan egingo dan “*Sorginen azken hegaldiaren itzalera 2018*” ibilpidearen atariko be izan da. Batzar Nagusietako Presidenteak bizkaitar guztiak konbidatu ditu “hereje hareen kalte-ordaineko ekitaldian” parte hartzera. Ekitaldi hori, “2018. urte honetan Bizkaiko Batzar Nagusien oso partaidetza garrantzitsua daukien” Ondarearen Europako Jardunaldien barruan dago.

Hilebete honetan gertatzen ari dan moduan, emakumeak eta genero ikuspegi kritikoa izango dira kultur ondarea hedatzeko ekitaldiaren gai nagusiak. 19:00etatik aurrera, *Sorginak* taldeak Kepa Junkeraren trikitiaren erritmora abestu eta dantzatuko dau.

Kontzertuak kolorea emongo deutso Belen Bengoetxea EHU-UPVko irakaslearen eta Jon Irazabal ikerlariaren arteko “Durangoko Lurraldeetako emakume, kleriko eta laikoen historia” solasaldiari.

Kontzerturako eta solasaldirako sarrerea librea izango da leku guztiak bete arte. Kultura jarduera horren ganeko informazio gehiago behar izan ezker, gerediaga@gerediaga.eus helbide elektronikoan edo 946 818 066 telefono zenbakira deituz eskatu ahal izango da.

NOTA DE PRENSA

16/10/18

Juntas Generales de Bizkaia y Gerediaga Elkarteak inauguran en Gerediaga una imagen conmemorativa en recuerdo de las mujeres acusadas de brujería hace 400 años

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha inaugurado esta mañana junto con la gerente de Gerediaga Elkarteak, Arantza Atutxa, una figura y una placa conmemorativa en recuerdo a todas aquellas mujeres que fueron acusadas de brujería por las autoridades de la Merindad de Durango en el siglo XVII. Esta instalación permanecerá a partir de hoy, y de manera permanente, en la Campa Foral de Gerediaga.

Este acto da continuidad al celebrado el pasado mes de junio en el que representantes de todos los actuales ayuntamientos de Duranguesado, así como las presidentas de las Juntas Generales y de Gerediaga Elkarteak, firmaron un manifiesto reivindicando la igualdad y el pensamiento libre.

La Presidenta de las Juntas Generales ha reconocido ante los allí presentes el cariz “especial” que tiene para ella tomar parte en conmemoraciones como la de hoy: “Siento más cerca a nuestros antepasados y esto supone una responsabilidad añadida”. “Queríamos y queremos visibilizar a aquellas mujeres anónimas”, ha explicado, “y por eso hoy vamos a dejar constancia de la represión que sufrieron a mano de nuestros alcaldes”.

La imagen, que desde hoy está instalada en la Campa Foral de Gerediaga, es la de una mujer con el típico tocado medieval. Un atuendo que, como ha recordado Otadui, suponía “una forma de control social hacia las mujeres, tal y como por ejemplo se constata en las Ordenanzas de la Villa de Bilbao de 1593”.

Junto a la figura está instalada una placa conmemorativa en la que se manifiesta lo siguiente: “Que esta silueta recuerde a las mujeres sin rostro, que acusadas de brujería sufrieron en 1617 y 1618 la represión de los alcaldes de la Merindad de Durango. Y el manifiesto, que pidiendo perdón por dichos actos y en pro de las libertades de pensamiento, conciencia y creencia, suscribieron las autoridades electas del Duranguesado el 9 de junio del 2018”.

SORGINEN AZKEN HEGALDIAREN ITZALERA 2018

Esta conmemoración ha supuesto también el prelude del itinerario “*Sorginen azken helgadiaren itzalera 2018*” que tendrá lugar en Gerediaga este viernes, 19 de octubre. La Presidenta de las Juntas Generales ha invitado a todos los vizcaínos y vizcaínas a participar en este “acto de desagravio a aquellas herejes”, el cual se enmarca en las Jornadas Europeas de Patrimonio “con las que las Juntas Generales de Bizkaia nos estamos volcando en este 2018”.

Como viene sucediendo a lo largo de este mes, las mujeres y la crítica visión de género serán los temas centrales de este acto de difusión del patrimonio cultural. A partir de las 19:00 el grupo *Sorgiñak* cantará y bailará al ritmo de la trikitixa de Kepa Junkera. El

concierto dará colorido al diálogo “las historias de mujeres, clérigos y legos en la Tierra del Duranguesado” entre la profesora de la UPV-EHU Belen Bengoetxea y el investigador Jon Irazabal.

La entrada tanto al concierto como al dialogo es libre hasta completar aforo. En caso de necesitar más información sobre esta actividad cultural podrán solicitarla mediante el mail gerediaga@gerediaga.eus o llamando al 946 818 066.